

EBAZPENA, 2024KO URTARRILAREN 31KOA, OSALANeko ZUZENDARI NAGUSIARENA, OSALAN-LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO EUSKAL ERAKUNDEAREN 2023-2026 ALDIRAKO DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ONARTZEN DUENA.

2023ko urtarrilaren 17ko Ebazpenaren bidez, Osalaneko zuzendari nagusiak OSALAN-LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO EUSKAL ERAKUNDEAREN 2023ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu zuen. Plan hori organo beraren abenduaren 4ko Ebazpenaren bidez aldatu zen, dirulaguntzen lerro berri bat sartzeko helburuarekin.

Berriki, Dirulaguntzen Araubidea erregulatzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legea onartu da. Lege horrek, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean (DLO) jasotako oinarriko legeriarekin bat etorritik, administrazio publikoetako organoek Dirulaguntzen Plan Estrategikoa (DPE) egiteko betebeharrak ezartzen du. Plan horretan, plana aplikatzean lortu nahi diren helburuak eta ondorioak, hori lortzeko behar den epea, aurreikus daitezkeen kostuak eta finantzaketa-iturriak zehaztuko dira, betiere aurrekontu-egonkortasuneko helburuak betetzearen mende.

20/2023 Legearen 6. artikuluko berritasun gisa jasotzen da plan estrategikoei lau urteko indarraldia izango dutela, baldin eta, jarduketan izaera dela-eta, epe luzeagoa behar ez bada. Egoera hori behar bezala arazoituko beharko da agirian bertan. OSALAN-LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO EUSKAL ERAKUNDEA erakunde autonomoaren Plan Estrategikoa indarraldi horretara egokitzeko, indarrean dagoen Plan Estrategikoa aldatu da, lerrokatzeko 2021-2026 aldirako Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategiaren indarraldia amaitzearekin. Horrela, DPEak lau urteko iraupena izango du, 2023-2026 aldia barne.

Aurrekoa gorabehera, DPEak programa-izaerari eusten dio, eta, beraz, edukiak ez du ez eskubiderik ez betebeharririk sortzen, eta haren eraginkortasuna dirulaguntza-lerroak praktikan jartzearen baldintzapean geratzen da, besteak beste ekitaldi bakoitzeko aurrekontu-baliabideak kontuan hartuta.

Horrela, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen egitura eta funtzionamenduaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 30eko 191/2002 Dekretuaren 17. artikulua ematen dizkion eskumenak erabiliz, honako hau

EBAZTEN DUT

Osalan Zerbitzu Zentralak | Servicios Centrales
Dinamita bidea, z.g. 48903 Barakaldo (Bizkaia)
Tlf: 94 403 21 90
www.osalan.euskadi.eus



Lehenengoa.- Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen 2023-2026 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzea. Plan hori eranskin gisa eransten da.

Bigarrena.- Plana Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen webgunean argitaratu beharko da, eta, era berean, antolamendu juridikoan informazioari eta gardentasunari buruz unean-unean aurreikusitako beste edozein xedapen aplikatuko zaio.

Barakaldo, 2024ko urtarrilaren 31n.

Sin.: Lourdes Iscar Reina
Osalaneko zuzendari nagusia

OSALAN- LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO EUSKAL ERAKUNDEAREN DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA 2023-2026 ALDIRAKO

1. SARRERA

Dirulaguntzen araubidea erregulatzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 6. artikulua xedatzen duenez, erakunde honek garatzen duen dirulaguntza jarduera alde aurretik planifikatu beharko da plan estrategiko baten bidez.

Planak honako hauek jasoko ditu: helburuak, lortu nahi diren ondorioak, horiek lortzeko epea, aurreikus daitezkeen kostuak, finantzaketa-iturriak, eta planaren helburuekin zerikusia duten ekintzak eta adierazleak, haien jarraipena eta ebaluazioa egin ahal izateko, betiere aurrekontu-egonkortasuneko helburuak betetzearen mende.

Plan estrategikoak programatikoak izango dira, eta haien edukiak ez du ez eskubiderik ez betebeharririk sortzen. Lau urteko indarraldia izango dute, kontuan hartzen dituzten jardueren izaera dela-eta epe luzeagoa behar denean izan ezik. Hori behar bezala arazoituko da dokumentuan bertan.

Dagokion ekitaldi ekonomikoa amaitzean, erakunde honek plan estrategiko honetan jasotako dirulaguntzen programak ebaluatu beharko ditu, lortutako emaitzak, baliagarritasuna eta eragin sozial eta ekonomikoa aztertzeko, eta programa horiek mantentzea edo ezabatzea bidezkoa den aztertzeko. Ebaluazio hori kontrol ekonomikoaren arloan eskumena duen sailari jakinaraziko zaio.

Era berean, plana bultzatu duen erakundeak egindako jarraipen-txostenen eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoak egindako txostenen ondorioz, lortu nahi diren helburuen lorpen-mailara iristen ez diren dirulaguntzen lerroak badaude, edo inbertitutako baliabideen mailara egokitzen direnak, horiek aldatu ahal izango dira, eraginkorragoak eta efizienteagoak diren beste batzuekin ordeztuz edo, hala badagokio, ezabatuz.

2. ERAKUNDE- ETA DENBORA-EREMUA

Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen egitura eta funtzionamenduaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 30eko 191/2002 Dekretuan jasotako eskumen eta eginkizunak betez kudeatzen dituen dirulaguntzak biltzen ditu Plan honek.

Denbora-eremuari dagokionez, Dirulaguntzen Araubidea erregulatzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 6.1 artikuluan arabera, Plan Estrategikoak lau urteko indarraldirako aurreikuspenak izango ditu; hala ere, erakunde honek aurreko ekitaldian onartutako Plan Estrategikoak 2023-2025 aldirako indarraldia aurreikusten zuen. Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategia (2021-2026) laneko arriskuen prebentzioa bultzatzen jarraitzeko eta laneko osasunari egindako kaltea desagerrarazteko lan egiteko tresna denez, egokia dirudi Plan Orokorraren hasierako denbora-eremua aldatzea, bai onartu berri den Dirulaguntzen Erregimena arautzen duen Legea egokitzeko, bai Euskal Estrategia horren xedearekin bat etortzeko, estrategia horren indarraldiaren amaierarekin bat etor dadin. Horrela, erakunde honen Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren indarraldia 2026ra arte luzatuko da.

3. HELBURUAK

Erakunde honek sustapen-jarduerarekin bete nahi dituen helburuak era askotakoak dira, eta 2021-2026ko Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategian ezarritako ardatzen eta helburuen barruan sartzen dira, bai eta Osalanen 2024ko kudeaketa-plana kontuan hartuta ere.

4. ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN LERROAK

2021-2026ko Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategian ezarritako ardatzen eta helburuen arabera, eta Osalanen 2024ko Kudeaketa Planari jarraituz, hauek dira dirulaguntzen lerroak biltzen dituzten ardatz estrategikoak:

I. ARDATZA: KULTURA. LAP EUSKAL GIZARTEAREN EZAUGARRI KULTURAL GISA

- 1. *Helburu Estrategikoa: Laneko segurtasunari eta osasunari buruz kontzientziatuago dagoen gizartea, laneko arriskuak prebenitzeko orduan ezagutza hobea duena eta arduratsuagoa dena.*
 - 1. dirulaguntza-lerroa.- Laneko arriskuen prebentzioa enpresaren kudeaketa-sisteman integratzeko jardunbide egokien saria
 - 2. dirulaguntza-lerroa.- Dirulaguntza APD-Asociación para el Progreso de la Dirección elkarteari, laneko segurtasun eta osasunari buruz sentsibilizatzeko eta ezagutza sortzeko jardunaldiak egiteko.
 - 3. dirulaguntza-lerroa.- Siderurgia Integraleko Langileen Fundazioari, hezkuntzan laneko arriskuen prebentzioan prestatzeko (ADI proiektua)

II. ARDATZA: PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SENDOA ETA KALITATEZKOA. LAP ERAKUNDEEN (ADMINISTRAZIOAK, ENPRESA PUBLIKO ETA PRIBATUAK) BIKAINTRASUN EZAUGARRI GISA ENPRESA-SARE JASANGARRI, MODERNO ETA LEHIAKOR BAT SENDOTZEAREN TESTUINGURUAN

- 4. *Helburu Estrategikoa: Enpresek eta erakundeek kalitatezko LAParen eredu bat dute.*
 - 4. dirulaguntza-lerroa.- AZTI Fundazioari, Euskadiko Elikaduraren eta Egurraren balio-katerako Laneko Segurtasun eta Osasunerako Estrategia Sektoriala bultzatzeko eta garatzeko.
 - 5. dirulaguntza-lerroa.- Prebentzioko ordezkarien prestakuntza
- 5. *Helburu Estrategikoa: Lanarekin zerikusia duten istripu eta gaixotasunek osasunean eragindako kalteak murrizten dira.*
 - 6. dirulaguntza-lerroa.- SEA-Arabako Enpresentzako Laguntza, osasuna sustatzeko programa.

III. ARDATZA: GOBERNANTZA: BOTERE PUBLIKOEN GOBERNANTZAK LANEKO SEGURTASUNEAN ETA OSASUNEAN DUEN BALIOA NABARMENTZEN DUTE

- *7. Helburu estrategikoa: Gobernuaren eta beste administrazio publiko batzuen politika guztietan laneko segurtasuna eta osasuna hobetzeko jarduketak sartzen dira.*
 - 7. dirulaguntza-lerroa.- Laneko Segurtasun eta Osasunerako Europako Agentziari.

- *8. Helburu Estrategikoa: Laneko arriskuak prebenitzeko egungo ereduan (pertsona autonomoak, plataformak, etxeko lana) txertatzeko zailtasunak dituzten lan-moduen azpian dauden kolektiboen lan-baldintzak eta laneko segurtasuna eta osasuna hobetzen dira.*
 - 8. dirulaguntza-lerroa.- Prestakuntzako eta dibulgazioko dirulaguntza (autonomoak eta ekintzaileak)

- *9. Helburu Estrategikoa: Ezagutza sortzen da, LAPeko prestakuntza, ikerketa eta berrikuntza sustatuz, generoikuspegia kontuan hartuta, eta horri esker aurrea hartzen zaie aldaketa sozialei (zahartzea, lana antolatzeko modu berriak, globalizazioa), teknologikoei (digitalizazioa, automatizazioa) eta ingurumenekoei (klima-aldaketa).*
 - 9. dirulaguntza-lerroa.- Laneko Arriskuen Prebentzioaren arloko jarduerak egitea 2024an (Laneko Arriskuen Prebentziorako Estatuko Fundazioa)
 - 10. dirulaguntza-lerroa.- Laneko arriskuen prebentzioaren arloko ikerketa-proiektuak
 - 11. dirulaguntza-lerroa.- UPV/EHUri, laneko medikuntzako katedra sortzeko
 - 12. dirulaguntza-lerroa.- UPV/EHUri. Lan-arriskuen prebentzioko masterra

- *12. Helburu estrategikoa: Gizarte-eragileekiko elkarriketa indartu eta sendotzen da, LAParen kudeaketa-eredu bat lortzeko, pertsonak erdigunean jarri eta gizartedeterminatzaileak barneratzen dituena.*
 - 13. dirulaguntza-lerroa.- OSALANen Kontseiluan eta Batzordeetan benetan parte hartzeagatik finantzaketa:
 - EAEn legez eraturako enpresa-elkarteak, martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretuaren 6. xedapen gehigarriaren arabera ordezkariarik handiena dutenak,
 - erakunde sindikalak, ordezkariarik handiena dutenen hauteskundeetako ordezkagarritasunaren proportzioan
 - Euskadiko kooperatibak
 - 14. dirulaguntza-lerroa.- Elkarriketa Sozialaren Mahaiko kideei, ETEen kultura prebentiborako euskal behatokiaren jarraipen-batzordean onartutako ekintzen arabera.

I. eranskinean zerrendatzen dira helburu, adierazle, eduki ekonomiko, xede dituzten sektore eta aurretik zerrendatutako dirulaguntzen lerro bakoitzaren emakida-

prozedura. Ildo horietan aldaketak egin daitezke, batez ere aurreikuspen ekonomikoetara dagokienez, erakunde horren aurrekontu-aukeren arabera; kasu horretan, plana eguneratuko litzateke, informazio hori eguneratuko lukeen ebazpen berri baten bidez.

I. ERANSKINA:

| | | | | | | |
|---|---|--|------|------|------|------|
| 1. Helburu Estrategikoa: <i>Laneko segurtasunari eta osasunari buruz kontzientziatuago dagoen gizartea, laneko arriskuak prebenitzeko orduan ezagutza hobea duena eta arduratsuagoa dena.</i> | | | | | | |
| 1. dirulaguntza-lerroa.- Laneko arriskuen prebentzioa enpresaren kudeaketa-sisteman integratzeko jardunbide egokien saria | | | | | | |
| Organoa: Zuzendaritza Nagusia | | | | | | |
| 1. helburua: Jardunbide egokien eta benetako integrazioaren adibideak eskaintzea, prebentzioa enpresaren kudeaketa-sisteman behar bezala txertatzen dela ikusarazteko | | | | | | |
| 1. ekintza: Saria ematea | | | | | | |
| Programa: 3113 Laneko segurtasuna eta osasuna | | | 2023 | 2024 | 2025 | 2026 |
| | | | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Zer sektoreri dagoen zuzendua | • EAEko enpresaburuak | | | | | |
| Dirulaguntza emateko prozedura | Norgehiagoka – EHAAn argitaratzea | | | | | |
| | • Hautagaien balorazioa | | | | | |
| | • Osalaneko zuzendari nagusiaren ebazpena | | | | | |

| | | | | | | |
|---|-----------------------|--|--------|--------|--------|--------|
| 1. Helburu Estrategikoa: <i>Laneko segurtasunari eta osasunari buruz kontzientziatuago dagoen gizartea, laneko arriskuak prebenitzeko orduan ezagutza hobea duena eta arduratsuagoa dena.</i> | | | | | | |
| 2. dirulaguntza-lerroa.- Dirulaguntza APD-Asociación para el Progreso de la Dirección elkarteari, laneko segurtasun eta osasunari buruz sentsibilizatzeko eta ezagutza sortzeko jardunaldiak egiteko. | | | | | | |
| Organoa: Plangintza Zuzendariordetza | | | | | | |
| 1. helburua: Enpresaburuak LSO inguruan sentsibilizatzea eta prestatzea | | | 2023 | 2024 | 2025 | 2026 |
| 1. ekintza: Ezagutza eta sentsibilizazioa sortzeko ekitaldiak antolatzea | | | | | | |
| 1. adierazlea: Jardunaldi kopurua | | | 3 | 3 | 3 | 3 |
| Programa: 3113 Laneko segurtasuna eta osasuna | | | 2023 | 2024 | 2025 | 2026 |
| 4. Kapituluak | | | 15.000 | 15.000 | 15.000 | 15.000 |
| Zer sektoreri dagoen zuzendua | • EAEko enpresaburuak | | | | | |
| Dirulaguntza emateko prozedura | Dirulaguntza izenduna | | | | | |

| | |
|--|--|
| | <ul style="list-style-type: none"> • Eskaera aztertzea • Osalaneko zuzendari nagusiaren ebazpena |
|--|--|

1. Helburu Estrategikoa: *Laneko segurtasunari eta osasunari buruz kontzientziatuago dagoen gizartea, laneko arriskuak prebenitzeko orduan ezagutza hobea duena eta arduratsuagoa dena.*

3. dirulaguntza-lerroa.- Siderurgia Integraleko Langileen Fundazioari, hezkuntzan laneko arriskuen prebentzioan prestatzeko (ADI proiektua)

Organoa: Zuzendariordetza Teknikoa

| | | | | |
|---|---|--------|--------|--------|
| 1. helburua: Lanbide Heziketako ikasleen artean laneko arriskuen prebentzioaren aldeko kultura sustatzea eta prebentzioaren garrantziaren inguruan sentsibilizatzea, haiek lan-merkatuan sartu aurretik | 2023 | 2024 | 2025 | 2026 |
| 1. ekintza: Informazio- eta sentsibilizazio-ekintzak diruz laguntzea | | | | |
| 1. adierazlea: ADI proiektuan prestatutako LHko ikasle-kopurua | 300 | 300 | 300 | 300 |
| Programa: 3113 Laneko segurtasuna eta osasuna | 2023 | 2024 | 2025 | 2026 |
| 4. Kapituluak | 20.000 | 20.000 | 20.000 | 20.000 |
| Zer sektoreri dagoen zuzendua | <ul style="list-style-type: none"> • Lanbide Heziketa | | | |
| Dirulaguntza emateko prozedura | Dirulaguntza izenduna | | | |
| | <ul style="list-style-type: none"> • Zuzendariordetza Teknikoak eskaera aztertzea • Osalaneko zuzendari nagusiaren ebazpena | | | |

4. Helburu Estrategikoa: *Enpresek eta erakundeek kalitatezko LAParen eredu bat dute.*

4. dirulaguntza-lerroa.- AZTI Fundazioari, Euskadiko Elikaduraren eta Egurraren balio-katerako Laneko Segurtasun eta Osasunerako Estrategia Sektoriala bultzatzeko eta garatzeko

Organoa: Zuzendariordetza Teknikoa

| | | | | |
|--|------|------|------|------|
| 1. helburua: Lehen sektorean laneko arriskuen prebentzioaren aldeko kultura sustatzea, bereziki kaltebera den sektore horretara bideratutako berariazko proiektuen bidez | 2023 | 2024 | 2025 | 2026 |
| 1. ekintza: Lehen sektoreko proiektuak diruz laguntzea | | | | |
| 1. adierazlea: Egindako kanpainen kopurua | 2 | 2 | 2 | 2 |

| | | | | |
|---|---|--------|--------|--------|
| 2. adierazlea: Bisitatutako enpresen kopurua | 40 | 40 | 40 | 40 |
| Programa: 3113 Laneko segurtasuna eta osasuna | 2023 | 2024 | 2025 | 2026 |
| 4. Kapituluia | 78.000 | 78.000 | 78.000 | 78.000 |
| Zer sektoreri dagoen zuzendua | <ul style="list-style-type: none"> Lehenengo sektorea | | | |
| Dirulaguntza emateko prozedura | Dirulaguntza izenduna <ul style="list-style-type: none"> Zuzendariordetza Teknikoak eskaera aztertzea Osalaneko zuzendari nagusiaren ebazpena | | | |

| | | | | |
|---|--|---------|---------|---------|
| 4. Helburu Estrategikoa: <i>Enpresek eta erakundeek kalitatezko LAParen eredu bat dute.</i> | | | | |
| 5. dirulaguntza-lerroa.- Prebentzioko ordezkarien prestakuntza | | | | |
| Organoa: Zuzendariordetza Teknikoa | | | | |
| | 2023 | 2024 | 2025 | 2026 |
| 1. helburua: Eragileei laneko arriskuak prebenitzeko eta lanean osasuna sustatzeko behar dituzten ezagutzak eta ahalmena ematea | | | | |
| 1. ekintza: Arauen arloko prestakuntza-ekintzak diruz laguntzea | | | | |
| 1. adierazlea: Gauzatutako ekintzen kopurua | 60 | 60 | 60 | 60 |
| 2. adierazlea: Ekintzan parte hartzen duten pertsonen kopurua | 900 | 900 | 900 | 900 |
| 2. ekintza: Arlo teknikoko prestakuntza-ekintzak diruz laguntzea | | | | |
| 1. adierazlea: Gauzatutako ekintzen kopurua | 60 | 60 | 60 | 60 |
| 2. adierazlea: Ekintzan parte hartzen duten pertsonen kopurua | 800 | 800 | 800 | 800 |
| Programa: 3113 Laneko segurtasuna eta osasuna | 2023 | 2024 | 2025 | 2026 |
| 4. Kapituluia | 300.000 | 300.000 | 300.000 | 300.000 |
| Zer sektoreri dagoen zuzendua | <ul style="list-style-type: none"> Prestakuntza-zentroak, publikoak nahiz pribatuak izan, sindikatuak eta prebentzio-zerbitzuak –zerbitzu horiek hitzartuta dituzten enpresetako prebentzioko | | | |

| | |
|--------------------------------|--|
| | ordezkariak-, baldin eta egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan badute. |
| Dirulaguntza emateko prozedura | Norgehiagoka – EHAAn argitaratzea |
| | <ul style="list-style-type: none"> Erakundeko teknikariek aurkeztutako eskabideei buruz egindako txostenak ikusiko dira. Osalaneko zuzendari nagusiaren ebazpena |

5. Helburu Estrategikoa: *Lanarekin zerikusia duten istripu eta gaixotasunek osasunean eragindako kalteak murrizten dira.*

6. dirulaguntza-lerroa.- SEA-Arabako Enpresentzako Laguntza, osasuna sustatzeko programa.

Organoa: Plangintza Zuzendariorde

| | 2023 | 2024 | 2025 | 2026 |
|--|--|--------|--------|--------|
| 1. helburua: Osasunaren sustapena | | | | |
| 1. ekintza: Arabako enpresetan osasuna sustatzeko ekintzak | | | | |
| 1. adierazlea: Gauzatutako ekintzen kopurua | 3 | 3 | 3 | 3 |
| Programa: 3113 Laneko segurtasuna eta osasuna | 2023 | 2024 | 2025 | 2026 |
| 4. Kapituluak | 30.000 | 30.000 | 30.000 | 30.000 |
| Zer sektoreri dagoen zuzendua | <ul style="list-style-type: none"> Arabako enpresak | | | |
| Dirulaguntza emateko prozedura | Dirulaguntza izenduna | | | |
| | <ul style="list-style-type: none"> Eskaera aztertzea Osalaneko zuzendari nagusiaren ebazpena | | | |

7. Helburu Estrategikoa: *Gobernuaren eta beste administrazio publiko batzuen politika guztietan laneko segurtasuna eta osasuna hobetzeko jarduketak sartzen dira.*

7. dirulaguntza-lerroa.- Laneko Segurtasun eta Osasunerako Europako Agentziari.

Organoa: Zuzendaritza Nagusia

| | 2023 | 2024 | 2025 | 2026 |
|--|------|------|------|------|
| 1. helburua: Laneko Segurtasun eta Osasunerako Europako Agentziaren behin betiko egoitza ezarri arte Euskadin jarraituko duela bermatzea | | | | |

| | | | | | |
|--|--|--------|--------|--------|--------|
| 1. ekintza: Laneko Segurtasunerako eta Osasunerako Europako Agentzia diruz laguntzea, Bilbon duen behin-behineko egoitzako gastuak ordaintzeko | | | | | |
| Programa: 3113 Laneko segurtasuna eta osasuna | | 2023 | 2024 | 2025 | 2026 |
| 4. Kapituluak | | 40.000 | 40.000 | 40.000 | 40.000 |
| Zer sektoreri dagoen zuzendua | <ul style="list-style-type: none"> Sektore Publikoa | | | | |
| Dirulaguntza emateko prozedura | Dirulaguntza izenduna | | | | |
| | <ul style="list-style-type: none"> Eskaera aztertzea Osalaneko zuzendari nagusiaren ebazpena | | | | |

8. Helburu Estrategikoa: *Laneko arriskuak prebenitzeko egungo ereduan (pertsone autonomoak, plataformak, etxeko lana) txertatzeko zailtasunak dituzten lan-moduen azpian dauden kolektiboen lan-baldintzak eta laneko segurtasuna eta osasuna hobetzen dira.*

8. dirulaguntza-lerroa.- Prestakuntzako eta dibulgazioko dirulaguntza (autonomoak eta ekintzaileak)

Organoa: Plangintza Zuzendariordeak

| | 2023 | 2024 | 2025 | 2026 |
|--|--------|--------|--------|--------|
| 1. helburua: Langile autonomoei laneko arriskuak prebenitzeko eta laneko osasuna sustatzeko gaitasuna helaraztea | | | | |
| 1. ekintza: Arauen arloko prestakuntza-ekintzak diruz laguntzea | | | | |
| 1. adierazlea: Gauzatutako ekintzen kopurua | 5 | 5 | 5 | 5 |
| 2. adierazlea: Ekintzan parte hartzen duten pertsonen kopurua | 100 | 100 | 100 | 100 |
| 2. helburua: Ekintzaileei laneko arriskuak prebenitzeko eta laneko osasuna sustatzeko gaitasuna helaraztea | | | | |
| 1. ekintza: Arauen arloko prestakuntza-ekintzak diruz laguntzea | | | | |
| 1. adierazlea: Gauzatutako ekintzen kopurua | 0 | 1 | 2 | 2 |
| 2. adierazlea: Ekintzan parte hartzen duten pertsonen kopurua | 0 | 30 | 50 | 50 |
| Programa: 3113 Laneko segurtasuna eta osasuna | 2023 | 2024 | 2025 | 2026 |
| 4. Kapituluak | 40.000 | 50.000 | 50.000 | 50.000 |

| | |
|--------------------------------|--|
| Zer sektoreri dagoen zuzendua | <ul style="list-style-type: none"> • Langile autonomoak • Ekintzaileak |
| Dirulaguntza emateko prozedura | Norgehiagoka – EHAAn argitaratzea |
| | <ul style="list-style-type: none"> • Eskaera aztertzea • Osalaneko zuzendari nagusiaren ebazpena |

9. Helburu Estrategikoa: *Ezagutza sortzen da, LAPeko prestakuntza, ikerketa eta berrikuntza sustatuz, generoikuspegia kontuan hartuta, eta horri esker aurea hartzen zaie aldaketa sozialei (zahartzea, lana antolatzeke modu berriak, globalizazioa), teknologikoei (digitalizazioa, automatizazioa) eta ingurumenekoei (klima-aldaketa).*

9. dirulaguntza-lerroa.- Laneko Arriskuen Prebentzioaren arloko jarduerak egitea 2024an (Laneko Arriskuen Prebentziorako Estatuko Fundazioa)

Organoa: Zuzendaritza Nagusia

| | 2023 | 2024 | 2025 | 2026 |
|---|------|------|------|------|
| <p>1.helburua: Lan-arriskuen prebentzioaren arloan sektore arteko edo sektoreko ekintzak egitea, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako lantokietan zerbitzuak ematen dituzten enpresei eta langileei zuzenduta.</p> <p>1. ekintza: Lan-arriskuen prebentzio-ekintzaren printzipioei edo printzipio horiek aplikatzeko arau zehatzei buruzko informazioa ematea eta langileen edo enpresaburuen artean zabaltzea.</p> <p>2. ekintza: prebentzio-jardueren aplikazio praktikoaren eta materialaren ondoriozko arazoak aztertzeke eta konpontzeke laguntza tekniko.</p> <p>3. ekintza. Produkzio-jardueraren sektoreetan eta azpisektoreetan eman daitezkeen programen metodoak eta edukiak diseinatzean datzan prestakuntza, batez ere enpresa txikiek osatutako egitura duten programetan.</p> <p>4. ekintza: laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia bete dadin sustatzea.</p> | | | | |

| | | | | | |
|---|--|------|------------|------|------|
| Lerro honen helburura bideratutako baliabide ekonomikoak Lan eta Gizarte Ekonomia Ministerioak transferitutako aurrekontu-kreditutik datoz. | | | | | |
| Programa: | | 2023 | 2024 | 2025 | 2026 |
| 4. Kapituluak | | 0 | 560.932,33 | | |
| Zer sektoreri dagoen zuzendua | <ul style="list-style-type: none"> Enpresa- eta sindikatu-erakundeak, fundazioak, taldeak edo horiek eraturako beste erakunde batzuk | | | | |
| Dirulaguntza emateko prozedura | Norgehiagoka – EHAAn argitaratzea <ul style="list-style-type: none"> Eskaera aztertzea Osalaneko zuzendari nagusiaren ebazpena | | | | |

9. Helburu Estrategikoa: *Ezagutza sortzen da, LAPeko prestakuntza, ikerketa eta berrikuntza sustatuz, generoikuspegia kontuan hartuta, eta horri esker aurrea hartzen zaie aldaketa sozialei (zahartzea, lana antolatzekeko modu berriak, globalizazioa), teknologikoei (digitalizazioa, automatizazioa) eta ingurumenekoei (klima-aldaketa).*

10. dirulaguntza-lerroa.- Laneko arriskuen prebentzioaren arloko ikerketa-proiektuak

Organoa: Plangintza Zuzendariordeak

| | 2023 | 2024 | 2025 | 2026 |
|---|------|------|------|------|
| 1. helburua: LAP arloko ikerketa sustatzea eta emaitzak zabaltzea | | | | |
| 1. ekintza: LAP arloko ikerketa-proiektu berritzaileak diruz laguntzea | | | | |
| 1. adierazlea: Diruz lagundutako proiektuen kopurua | 5 | 5 | 5 | 5 |
| 2. ekintza: Emaitzen zabalkundea | | | | |
| 1. adierazlea: Beste enpresa batzuetan aplikagarriak izan daitezkeen diruz lagundutako proiektuen kopurua | 5 | 5 | 5 | 5 |
| 2. adierazlea: Osalanen webgunean argitaratutako proiektuetara izan diren bisiten kopurua | 500 | 500 | 500 | 500 |

| Programa: 3113 Laneko segurtasuna eta osasuna | | 2023 | 2024 | 2025 | 2026 |
|---|--|---------|---------|---------|------|
| 4. Kapituluak | Ikerketa-proiektuak SAFERAren deialdia (Joint Programing and funding initiative to strengthen research on industrial safety) | 125.000 | 250.000 | 125.000 | |
| | | 25.000 | 50.000 | 25.000 | |
| | Guztira | 150.000 | 300.000 | 150.000 | |
| Zer sektoreri dagoen zuzendua | <ul style="list-style-type: none"> Pertsona fisikoak edo juridikoak, unibertsitate publikoak edo pribatuak, unibertsitateak, ikerketa-zentroak, zientzia-elkarteak, administrazio publikoak, prebentzio-zerbitzuak eta beste erakunde batzuk, betiere Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta badaude. | | | | |
| Dirulaguntza emateko prozedura | Norgehiagoka – EHAAn argitaratzea | | | | |
| | <ul style="list-style-type: none"> Ebaluazio-batzorde batek eskariak aztertzea Osalaneko zuzendari nagusiaren ebazpena | | | | |

9. Helburu Estrategikoa: *Ezagutza sortzen da, LAPeko prestakuntza, ikerketa eta berrikuntza sustatuz, generoikuspegia kontuan hartuta, eta horri esker aurea hartzen zaie aldaketa sozialei (zahartzea, lana antolatzeke modu berriak, globalizazioa), teknologikoei (digitalizazioa, automatizazioa) eta ingurumenekoei (klima-aldaketa).*

11. dirulaguntza-lerroa.- UPV/EHUri, laneko medikuntzako katedra sortzeko

| Organoa: Plangintza Zuzendariorde | | | | | |
|---|---|--------|--------|--------|--------|
| | | 2023 | 2024 | 2025 | 2026 |
| 1. helburua: | Lan-medikuntzaren espezialitatea sustatzea EHU | | | | |
| 1. ekintza: | EHUn lan-medikuntzako katedra sortzeko dirulaguntzak ematea | | | | |
| Programa: 3113 Laneko segurtasuna eta osasuna | | 2023 | 2024 | 2025 | 2026 |
| 4. Kapituluak | | 40.000 | 40.000 | 40.000 | 40.000 |
| Zer sektoreri dagoen zuzendua | <ul style="list-style-type: none"> Euskal Herriko Unibertsitatea | | | | |
| Dirulaguntza emateko prozedura | Dirulaguntza izenduna | | | | |
| | <ul style="list-style-type: none"> Osalaneko zuzendari nagusiaren ebazpena | | | | |

9. Helburu Estrategikoa: *Ezagutza sortzen da, LAPeko prestakuntza, ikerketa eta berrikuntza sustatuz, generoikuspegia kontuan hartuta, eta horri esker aurea hartzen zaie aldaketa sozialei (zahartzea, lana antolatzeako modu berriak, globalizazioa), teknologikoei (digitalizazioa, automatizazioa) eta ingurumenekoei (klima-aldaketa).*

12. dirulaguntza-lerroa.- UPV/EHUri. Lan-arriskuen prebentzioko masterra

Organoa: Zuzendariordetza Teknikoa

| 1. helburua: LAP arloko etorkizuneko profesionalen prestakuntza praktikoa | 2023 | 2024 | 2025 | 2026 |
|---|---|--------|--------|--------|
| 1. ekintza: UPV/EHUren LAP arloko masterrean kanpoko irakasleen eskutik jasotako prestakuntza diruz laguntzea | | | | |
| 1. adierazlea: Osalaneko teknikariek emandako irakaskuntza-orduak | 65 | 65 | 65 | 65 |
| 2. adierazlea: Genero-ikuspegia duten irakaskuntza-orduak | 4 | 4 | 4 | 4 |
| Programa: 3113 Laneko segurtasuna eta osasuna | 2023 | 2024 | 2025 | 2026 |
| 4. Kapitulua | 13.000 | 13.000 | 13.000 | 13.000 |
| Zer sektoreri dagoen zuzendua | <ul style="list-style-type: none"> Euskal Herriko Unibertsitatea | | | |
| Dirulaguntza emateko prozedura | Dirulaguntza izenduna <ul style="list-style-type: none"> Zuzendariordetza Teknikoak eskaera aztertzea Osalaneko zuzendari nagusiaren ebazpena | | | |

12. Helburu Estrategikoa: *Gizarte-eragileekiko elkarrizketa indartu eta sendotzen da, LAParen kudeaketa-eredu bat lortzeko, pertsonak erdigunean jarri eta gizartedeterminatzaileak barneratzen dituena.*

13. dirulaguntza lerroa.- OSALANen Kontseiluan eta Batzordeetan benetan parte hartzeagatiko finantzaketa:

- EAEn legez eraturako enpresa-elkarteak, martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretuaren 6. xedapen gehigarriaren arabera ordezkariarik handiena dutenak,
- erakunde sindikalak, ordezkariarik handiena dutenen hauteskundeetako ordezkagarritasunaren proportzioan
- Euskadiko kooperatibak

Organoa: Zuzendaritza Nagusia

| 1. helburua: Gizarte-eragileei LAP arloko politika globalean | 2023 | 2024 | 2025 | 2026 |
|--|------|------|------|------|
| | | | | |

| | | | | |
|--|---|---------|---------|---------|
| parte hartzeko aukera ematea, Osalaneko Kontseilu Nagusiaren bitartez | | | | |
| 1. ekintza: Diruz laguntzea eragileen parte hartzea Osalaneko Kontseilu Nagusian | | | | |
| 1. adierazlea: Osalaneko Kontseilu Nagusiaren bilera-kopurua | 4 | 4 | 4 | 4 |
| 2. adierazlea: Kudeaketa Planaren jarraipen bilera-kopurua | 2 | 2 | 2 | 2 |
| 3. adierazlea: Prestakuntza Batzordearen jarraipen-bileren kopurua | 4 | 4 | 4 | 4 |
| Programa: 3113 Laneko segurtasuna eta osasuna | 2023 | 2024 | 2025 | 2026 |
| 4. Kapituluak: Enpresa-elkarteak | 229.083 | 233.665 | 233.665 | 233.665 |
| Sindikatuak | 324.776 | 331.272 | 331.272 | 331.272 |
| Kooperatibak | 54.128 | 55.211 | 55.211 | 55.211 |
| Zer sektoreri dagoen zuzendua | <ul style="list-style-type: none"> • EAEn legez eraturako ordezkagarritasun handieneko enpresa-elkarteak • Ordezkagarritasun handieneko sindikatuak • Euskadiko kooperatibak | | | |
| Dirulaguntza emateko prozedura | Norgehiagoka – EHAA n argitaratzea | | | |
| | <ul style="list-style-type: none"> • Eskaera aztertzea • Osalaneko zuzendari nagusiaren ebazpena | | | |

12. Helburu Estrategikoa: *Gizarte-eragileekiko elkarrizketa indartu eta sendotzen da, LAPren kudeaketa-eredu bat lortzeko, pertsonak erdigunean jarri eta gizartedeterminatzaileak barneratzen dituena.*

14. dirulaguntza-lerroa. - Elkarrizketa Sozialaren Mahaiko kideei, ETEen kultura prebentiborako euskal behatokiaren jarraipen-batzordean onartutako ekintzen arabera.

Organoa: Zuzendaritza Nagusia

| | 2023 | 2024 | 2025 | 2026 |
|---|------|------|------|------|
| 1. helburua: Laneko segurtasuna eta osasuna sustatzea | | | | |
| 1. ekintza: Jarraipen Batzordean onartutako ekintzak | | | | |
| 1. adierazlea: Gauzatutako ekintzen kopurua | 35 | 35 | 35 | 35 |

| Programa: 3113 Laneko segurtasuna eta osasuna | | 2023 | 2024 | 2025 | 2026 |
|---|--|---------|---------|---------|---------|
| 4. Kapitulu | | 250.000 | 250.000 | 250.000 | 250.000 |
| Zer sektoreri dagoen zuzendua | <ul style="list-style-type: none"> • Enpresa-eta sindikatu-elkarteak | | | | |
| Dirulaguntza emateko prozedura | Norgehiagoka – EHAA argitaratzea | | | | |
| | <ul style="list-style-type: none"> • Eskaera aztertzea • Osalaneko zuzendari nagusiaren ebazpena | | | | |